

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Basabe Kortabarria, Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** egiten du “Jon Anzaren auziari buruz”, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

ZIOA

Hilabete joan da Jon Anza euskal herritarraren gorpua Frantziako ospitale bateko gorputegian agertu zenetik. Denbora badoa, baina heriotza horren inguruko azalpenek ez dituzte haren inguruan dauden zalantzak inolaz ere argitu. Behar-beharrezkoa da, ostera, horiek ahalik eta arinen argi daitezela, hala Jon Anzaren senide eta lagunek nola euskal hiritar askok gertaturikoaren inguruan dituzten zalantzek behar bezalako erantzuna jaso dezaten.

Hori dela eta, honako legez besteko proposamena egiten dugu, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1. Eusko Legebiltzarrak bere kezka adierazten du Jon Anzaren heriotza oso arraroak diren inguruabarretan gertatu baita.
2. Eusko Legebiltzarrak, heriotza horren inguruan dauden zalantza eta gune beltzak argituko dituen ikerketa independente eta sendo bat egitea eskatzen du, Amnesty International edo eta Humans Right Watch erakundeen gisakoekin.
3. Eusko Legebiltzarrak Ikerketa horren ondorioz sortu daitezkeen erantzukizun guztiak garbitzea eskatzen dio Frantziako Errepublikaren presidente Nikolas Sarkozy jaunari.

Gasteizen, 2010eko apirilaren 13an

Mikel Basabe Kortabarria
Aralar taldeko legebiltzarkidea